

Alfabetatzearen Nazioarteko Eguna

Hezkuntza: Caritas sareko ekintzaren ardatza, gizarte-bazterketaren eta desparekotasunaren aurka borrokatzeko

Alfabetatzea da egoerarik ahulenean dauden komunitateei laguntzeko lehentasunetako bat.

Alfabetatzearen Nazioarteko Eguna iragan irailaren 8an ospatu zen, eta ospakizun hori aukera bikaina izan daiteke hezkuntzaren garrantzi estrategikoa nabarmentzeko, ekintza humanitarioaren ardatz hori oinarritzkoa baita Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzeko (helburu horiek Nazio Batuen 2030 Agendan adierazita daude).

Kalitatezko hezkuntza eskura izatea

2015eko irailean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak onartu zituzten munduko agintariak. Helburu horietako batzuk dira, besteak beste, kalitatezko hezkuntzarako sarbide unibertsala sustatzea eta pertsonak bizitza osoan zehar ikasteko aukerak izatea. Hain zuzen ere, 4. helburuaren jomugetako bat da gazte guztiek irakurtzen eta idazten ikastea eta oinarritzko aritmetika-ezagutzak lortzea, bai eta ezagutza horiek ez dituzten pertsona helduek horiek ikasteko aukera izatea ere.

Caritasek, egoerarik ahulenean dauden komunitateei laguntzeko egiten duen lanean, lehentasunetako ardatz nagusitzat jotzen du pertsonak alfabetatzea eta hezkuntza haien eskura jartzeko laguntza eskaintzea. Gizarte-bazterketaren eta desparekotasunaren aurka borrokatzeko, beharrezkotzat jotzen du bere gizareratze-prozesuetan eta sustapen sozialeko prozesuetan alfabetatze-programak eta hezkuntza sendotzeko programak sartzea, bai Espainian garatzen dituen prozesuetan eta bai Hegoaldeko herrialdeetan garatzen dituenetan (haietan, anaitasunezko lankidetzak programak gauzatzen ditu).

Alfabetatzea eta konpetentziak sustatzeari esker, pertsonen bizitza, autonomia eta gaitasunak hobetzen dira, eta horren ondorioz, gizarte bidezkoagoak eta jasangarriagoak sortzen ditugu.

Hezkuntza soziala sendotzeko programa

Alor honetan, hainbat ekintza eraman dira aurrera; esate baterako, hezkuntza sendotzeko programa. Adibide bat, CARITAS GIPUZKOAK sustatzen duen **Bultzada Programa**: Familia, Emakumeak eta Haurrak sailak, programa hori zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeei eskaintzen die.

Programaren arduradunak, Mila Fernandezek adierazi duen bezala, "gure ekintzak bat datoz Caritasen izateko eta egiteko moduarekin; izan ere, ekintza hezigarriak, prebentiboak, integralak eta komunitarioak sustatzen ditugu. Guk —erantsi du— beharrezkoa ikusten dugu sarean lan egitea indartzea, adin txikikoekin, haien familiekin, parrokiak osatzen dutenekin, hezkuntzako eragileekin, eta baita gizarte-eragileekin ere".

Hezkuntza formalean, Caritasek tutoretzak antolatzen ditu irakasleekin, eta bilerak orientazio-taldeekin. Helburua da ikastetxeen hezkuntza-zereginak programan parte hartzen duten adingabeekin eta haien familiekin sendotzea eta koordinatzea. Horri lotuta, hezkuntza ez-formalean hainbat jardura egiten dira Laguntza Sozio Hezitzailearen bidez.

Horretaz gainera, hezkuntza sendotzeko programa osatzeko, familiei ere ematen zaie laguntza; esaterako, banakako tutoretzekin eta gurasoen tailerrekin: Horrela, sendotu egiten da familiek hezkuntzan duten garrantzia.

Gaur egun, Bultzada programan teknikari bat eta 25 boluntario inguru daude Irun, Andoain eta Errenterian, eta ikasturtean zehar 75 bat hurrekin, eta 33 familiarekin egiten dute lan.

Helduen alfabetatzea

Laguntza Etxea egoitzak, urteak daramatza CARITAS GIPUZKOAKo Etxerik Gabeko Pertsonen saileko pertsonen –adin nagusikoak– alfabetizazioa bultzatzen. 2018-19 ikasturtean zehar (urria-ekaina) 30 lagun inguruk, hezkuntza alorreko 7 boluntarioz osaturiko talde baten koordinaziopean, alfabetizazio saioak jasoko dituzte astelehenetik ostegunera (10:30-12:30).

Laguntza Etxean eskaintzen den heziketak hiru maila ditu: oinarrizkoa (parte hartzaileek ez dute gaztelaniaren ez ahozko eta ez idatzizko inolako ezagutzarik), erdikoa (ahozko ezagutza gorabeheratsua baina ez idatzizkoa), eta altua (gazteleraz mintzatzeko, irakurtzeko eta idazteko gai dira). Etxerik Gabeko Pertsonen sailera hurbiltzen diren pertsonentzako, alfabetizazioa, lanabes garrantzitsua da bere auto-estimuaentzat, bere erlazio-eremuarentzat (jende berria ezagutu...), bere lan-ingurunea bultzatzen baitu (sortu daitezkeen ikastaro hezigarrietarako instrumentua), hitz batean, bere sustapen eta autonomia pertsonalarentzako.